

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANTAURIKO UR PARTZUERGOA

Ur homidura eta saneamendu zerbitzuaren tasei buruzko zergadunen 2018ko laugarren hiru-hilekoko errolda

Erabiltzaileak Hartzeko Zerbitzuak ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu tasei buruzko zergadunen 2018ko laugarren hiruhilekoko errolda egin du.

Lehendakariak otsailaren 4ko 23/2019 Ebazpenaren bidez onartu egin du, eta jendaurrean jarriko da hamabost (15) egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Interesa dutenek Herritarrak Hartzeko Zerbitzuan aztertu ahal izango dute zergadunen errolda hori, 09:00ak eta 13:00ak bitartean. Zerbitzu hori Amurrioko udaletxean (Juan de Urrutia plaza zk.g.; behe solairua) dago. Era berean, egoki deritzeten eta beren eskubide diren argibideak eskatu eta alegazioak edo erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Zergadunek erroldak jendaurrean jartzeak likidazioen jakinarazpen bateratua egitea du helburu, hala egin behar dela xedatzen baitu Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrek 98. artikuluan 3. paragrafoan.

Zergadunek berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute lehendakariaren aipatutako ebazpenaren aurka. Horretarako hilabete (1) izango dute iragarkiaren jendaurreko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera.

Argibideak, alegazioak, erreklamazioak eta berraztertze-errekurtsoak lehendakariari jarriko zaizkio, adierazitako epeen barruan.

Borondatezko aldian ordaintzeko epea bi hilabetekoa izango da, 2019ko otsailaren 25etik apirilaren 24ra, bi egun horietan barne.

Ordainagiriak helbideratuta dauzkaten 2019ko otsailaren 25ean kobratuko zaizkie.

Tasa hori helbideratuta ez dutenek Caixabankek Amurrioko Elexondo kaleko 21ean duten bulegoan ordaindu beharko dute, astelehenetik ostiralera 08:15ak eta 10:15ak bitartean, etxean jasotako faktura eskuetan dutela. Faktura hori galdu edo jaso ez bada, Herritarrak Hartzeko Zerbitzuan (Amurrioko udaletxea) jaso ahal izango da haren kopia.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta legez ezarritako errekarquak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Izoria, 2019ko otsailaren 4a

Lehendakaria

JULEN IBARROLA GOBANTES